AIZARNAZABALGO UDALA
Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)

Zenbakia ______

Zenbakia: 04/2015
Eguna: 2015/04/29
Ordua: 20:00

# UDAL OHIKO OSOKO BILKURAREN AGIRIA

*ALKATEA:*

Alvaro Villar Fernández.

*ZINEGOTZIAK:*

Francisco María Gabarain Gárate.

Maria Carmen Arregi Agirre.

Asier Larrañaga Etxeberria.

Yolanda Alkorta Gómez.

Asier Zamakola Ibaibarriaga.

Miren Itziar Aizpurua Antía.

*ETORRI IZAN EZ DUTENAK:*

*IDAZKARI KONTUHARTZAILEA*

Begoña Gorritxategi Osa.

Aizarnazabalen bi mila eta hamabosteko Apirilaren hogeita bederatzian, Aizarnazabalgo Udaletxeko Areto Nagusian, arratsaldeko zortziak direnean eta Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarriak Erregulatzen duen 7/1985 Legearen 46.2.c) artikuluak agintzen duena kontutan hartuz, Alkateak, hasera ematen dio Udal Osoko Bilkura honi, aurrez konprobatuz, Korporazioko kideen gutxiengo kopurua eta Alkate eta Idazkaria bertan daudela.

1. Azkenengo Udal Osoko Bilkuraren agiriaren zirriborroa onestea hala badagokio.

2. Alkatearen Dekretuen berri ematea.

3. Ordainketa eta diru kontuak.

4. Datozen hauteskundeetarako mahairako kideak izendatzea zozketa bidez.

5. Aizarnazabalgo Inda Mendi Jubilatuen Taberna ustiatzeko zerbitzua kontratatzeko lehiaketa publikoaren esleipena.

6. Baltasar Etxabe 6-8 inguruan ur tuberiak berritzea eta Biltegirako bidearen obra kontratua esleitzea.

7. Bake Epailearen kargu uzketa eta hautaketarako espediente berria hastea.

8. Argiteria Publikoa berritzearen likidazioa.

9. Galdera eta eskeak.

105575

AIZARNAZABALGO UDALA
Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)

Zenbakia ________

## *1. AZKENENGO UDAL OSOKO BILKURAREN AGIRIAREN ZIRRIBORROA ONESTEA HALA BADAGOKIO.*

Alkate Jaunak galdetzen die bertaratutako Jaun Andreei, ea 03/2015 zenbakia daraman 2015eko Martxoaren 25eko, Udal Osoko Bilkuren Agiria onartzeko, ados dauden, eta baietz esan ondoren, azkeneko udal osoko bilkuraren agiria onesten da aho batez.

## *2. ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.*

Alkateak eman dituen ondorengo Dekretuen berri eman zen:

| *Zenbakia* | *Edukia* |
|---|---|
| 12/2015 | Obra baimena 02/2015. Jose Antonio Kaperotxipi Ostolaza. |
| 13/2015 | Obra baimena 03/2015. Jon Errazkin Amiano. |
| 14/2015 | 2015-1 hiruhilabeteko likidazioa. Naturgas Energía Comercializadora SAU |
| 15/2015 | Baltasar Etxabe 6 eta 8 zenbakien inguruan ur tuberiak berritzea eta ur biltegira bidearen obren kontratazio espedientea hastea. |
| 16/2015 | Udal Korporazioaren zinegotzien dieten likidazioa 2015eko 1° hiru hilabetea. |
| 17/2015 | Ibarreneko espaloia egitearen obren esleipena Egurki Aroztegia S.L. ri. |
| 18/2015 | Baserri bideetan obrak egiteko esleiena, Excavaciones Ekin S.L.ri. |

## *3. ORDAINKETA ETA DIRU KONTUAK.*

Ondorengo fakturak onartzea erabaki zen aho batez:

| *FAKTURAK* | | |
|---|---|---|
| *Izena* | *Kontzeptua* | *€* |
| SERCUSA | Lauburuko gimnasioan produktua. | 1.515,22 |
| Urola Kostako HITZA | 2015eko diru laguntza. | 2.100,00 |
| Udalbiltza Partzuergoa. | 2015eko ohiko kuota. | 1.000,00 |
| Excavaciones EKIN S.L. | Baserri bideak. Faktura 17/15 | 19.187,68 |
| Egurki Aroztegia S.L. | Zehatz auzoko sarrera. Faktura 00032 | 22.765,64 |
| Egurki Aroztegia S.L. | Ibarreneko espaloia. Faktura 00033 | 20.972,16 |
| Egurki Aroztegia S.L. | Kortazar sarrera. Faktura 00034 | 5.984,66 |

105575

AIZARNAZABALGO UDALA
Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)



Zenbakia ________

## *4. DATOZEN HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIRAKO KIDEAK IZENDATZEA ZOZKETA BIDEZ.*

Hauteskunde Erregimen Orokorraren Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 26. Artikuluaren arabera, ondorengo Kideek izendatu ziren, Maiatzaren 24ean burutuko diren Hauteskundeetako Mahairako.

LEHENDAKARIA: Idoia González Tapia.
1° BOKALA: Miren Nekane Arruabarrena Azpeitia.
2° BOKALA: Iker Tomás Santamaria.
LEHENDAKARIAREN 1° ORDEZKOA: Maria del Coro Ibargoyen Zulaica.
LEHENDAKARIAREN 2° ORDEZKOA: Maria Elena Tetuan Iriarte.
1° BOKALAREN 1° ORDEZKOA: Maria Begoña Arakistain Uranga.
1° BOKALAREN 2° ORDEZKOA: Estibalitz Fernández Rozas.
2° BOKALAREN 1° ORDEZKOA: Asier Zulaika Manterola.
2° BOKALAREN 2° ORDEZKOA: Amaia Etxeberria Elizegi.

## *5. AIZARNAZABALGO INDA MENDI JUBILATUEN TABERNA USTIATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO LEHIAKETA PUBLIKOAREN ESLEIPENA.*

Aizarnazabalgo Udalaren Udal Osoko Bilkurak, 2015eko martxoaren 25ean, erabaki zuen, Aizarnazabalgo Inda Mendi Jubilatuen Taberna Ustiatzeko zerbitzuaren kontratua esleitzeko espediente berria hastea eta lehiaketa irekia arautzeko plegu teknikoa eta administratiboak onartzea.

AIZARNAZABALGO UDALA
Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)

Zenbakia ________

Iragarkia publikoari erakusgai jarri zitzaion eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2015eko apirilaren 8an.

Kontratazio mahaiak, ESTANIS ANTIA IBARBIA JAUNA proposatu du Aizarnazabalgo Inda Mendi Jubilatuen Taberna ustiatzeko zerbitzua kontratatzeko lehiaketa publikoa esleitua izan dadila

Guzti hau kontutan izanik, Aizarnazabalgo Udal Osoko Bilkurak aho batez, ondorengo hau erabaki du:

**LEHENA**: Estanis Antia Ibarbia Jaunarekin kontratua sinatzea, "Aizarnazabalgo Inda Mendi Jubilatuen Taberna ustiatzeko zerbitzua kontratatzeko", aurkeztu behar dituen agiriak aurkezten dituenean.

**BIGARRENA**: Alkatea den Alvaro Villar Fernández Jauna ahalmentzea, egin behar diren tramite administratibo guztiak egin ditzan.

## *6. BALTASAR ETXABE 6-8 INGURUAN UR TUBERIAK BERRITZEA ETA BILTEGIRAKO BIDEAREN OBRA KONTRATUA ESLEITZEA.*

Kontutan izanda,

LEHENA: "Baltasar Etxabe 6 eta 8 zenbakien inguruan ur tuberiak berritzea eta Ur Biltegira bidearen obren" kontratazio espedientea hastea ebatzi zen Alkate Dekretu bidez 2015eko apirilaren 3an, publizitaterik gabeko negoziatua prozedurarekin.

BIGARRENA: Estudio Urgarik idatzi duela proiektu teknikoa izenburu honekin:
"Proyecto de mejoras en la red de distribución de agua ene l entorno de Baltasar de Etxabe 6 y 8 y camino del depósito", ondorengo aurrekontuarekin (BEZ gabe):

I05575

AIZARNAZABALGO UDALA
Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)

Zenbakia ________

| | |
|---|---|
| 1 lotea: Baltasar Etxabe, 6-8 zenbakiak. | 137.615,86 euro. |
| 2 lotea:Mugitzagaña-deposito bidea- Iturri zahar. | 22.373,89 euro. |
| GUZTIRA | 159.989,85 euro. |

HIRUGARRENA: Lau enpresei gonbidapenak bidali ondoren, Kontratazio mahaiak 2015eko apirilaren 24ean egin zuen bilkuran, URBYCOLAN S.L. enpresari obrak esleitzea proposatu zuen.

Guzti hau kontutan izanik, Udal Osoko Bilkurak aho batez ondorengo hau erabakitzen du:

**LEHENA:** "Baltasar Etxabe 6 eta 8 inguruan ur tuberiak berritzea eta Biltegirako bidearen Obra eta Segurtasun eta Osasun Plana eta koordinazioa" egiteko URBYCOLAN, S.L. enpresari esleitzea 129.567,62 euro gaitik.

**BIGARRENA:** Alkatea den Alvaro Villar Fernández Jauna ahalmentzea, egin behar diren tramite administratibo guztiak egin ditzan.

***7. BAKE EPAILEAREN KARGU UZKETA ETA HAUTAKETARAKO ESPEDIENTE BERRIA HASTEA.***

Kontutan izanik,alde batetik, Aizarnazabalgo Bake Epailea zen Pedro Jose Manterola Peña Jaunak bere karguari uko egin ziola 2015eko apirilaren 22ean eta beste alde batetik, lau urte igaro direla bake epaile kargua hartu zutenetik titularrak eta ordezkoa den Justo Alkorta Larrañaga Jaunak, Udal Osoko Bilkurak erabakitzen du, Bake Epaile titular eta Ordezkoak izendatzeko espediente administratiboa hastea, Bake Epaileen ekainaren 7ko 1995/3 Erregelamenduaren eta Botere Judizialeko uztailaren 1eko 1985/6 Lege Organikoak xedatzen dutenaren arabera.

105575

AIZARNAZABALGO UDALA
Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)

Zenbakia ________

## 8. ARGITERIA PUBLIKOA BERRITZEAREN LIKIDAZIOA.

Gai ordenarekin jarraituz, Alkateak, argiteri publikoa berritzearen inguruan, ondorengo likidazioa aurkeztu zuen EKOLEDS INNOVATION enpresak egin dituen eta egin behar dituen lanena:

| | |
|---|---|
| Herriko argiteria berriztatzea. I. fasea. Faktura 413. 2014koa. EVEk eman duen diru laguntza 9.221 euro. | 37.190,00 |
| Etxezarretako argiteria berriztatzea. Aurrekontua Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatuko zaio diru laguntza. | 38.637,24 |
| Herriko argiteria berriztatzea. II fasea. Aurrekontua. | 5.449,05 |
| **Guztira argiteria publikoa berriztatzearen likidazioa.** | **81.276,29** |

## 9. GALDERA ETA ESKEAK.

Itziar Aizpurua Antia Zinegotziak aipatzen du, Eliza atzeko bidean, Kamio etxetik herrira bitartean ibilgailuek abiadura azkarra hartzen dutela eta lurrean seinale bat margotzea ondo legokela.

Eta beste gairik ez zegoela ikusi ondoren, Udal Osoko Bilkura hau gaueko bederatzietan amaitu zen eta Idazkaria naizenez ziurtatzen dut Alkatearen On Iritziarekin.

O.I.

Alkatea,

Idazkari-kontuhartzailea,

AIZARNAZABALGO UDALA

I05575